# ERANSKINAK

1. ERANSKINA: Irakasleei egindako elkarrizketen galderak.

| IRAKASLENTZAKO GALDERAK | IRAKASLEEN ERANTZUNAK |
|---|---|
| Inoiz eskolan euskal mitologiaren inguruan zerbait egin da? Egin bada, noiz egin zen eta zein mailentzako egin zen? | Elkarrizketak egin ditugunean, irakasle batzuek (Haur hezkuntzako hezitzaile bik (4 eta 5 urteko gelan) eta Lehen hezkuntzako beste bik (3. eta 6. Mailakoak)) kontatu digute lehen hezkuntzako mailetan zeharka bada ere, euskal mitologia lantzen saiatzen direla. Hau da, gutxienez umeek bertoko tradizioen eta ohituren berri badutela. |
| Herrian euskal mitologiaren inguruan zerbait jorratu da? | Herrian, Euskal Mitologiaren inguruko zenbait antzerki egin dituzte. |
| Zer irudituko litzaizueke eskolan Euskal mitologia lantzea? | Aipatutako irakasle desberdinei galderak egin zaizkienean, esan dute interesgarria izango litzaiekeela horrelako gaia umeekin lantzea. |

2. ERANSKINA: Hasierako ebaluazioa behaketa txantiloia landa-oharrak






- Non bizi dira pertsonaiak?

| | |
|---|---|
| MARI | 3 urtekoak: Batek basoan bizi dela esan du.<br>4 urtekoak: Basoan, kobazuloan, mendian. |
| Sugaar | Ez dute jakin. |
| Akerbeltz | 3 urtekoek: Ez dute jakin<br>4 urtekoek: Koban bizi dela |
| Atarrabi Mikelats | Ez dute jakin. |
| Lamiak | 3 urtekoek: Ez dute jakin.<br>4 urtekoek: errekatan bizi direla esan dute bik. |
| Basajaun | 3 urtekoek: Bik basoan dela, beste batek mendian.<br>4 urtekoek: Denek mendian bizi dela esan dute. |
| Tartalo | 3 urtekoek: Koban bizi dela esan du batek<br>4 urtekoek: Hauk esan dute koban bizi dela |
| Galtzagorri | 3 urtekoek: Ez dute jakin<br>4 urtekoek: batek esan du kaxa baten edo bizi direla. |

- Basajaunek zer egiten du? (zer ofizio edo?)

Ez dute horren berri inork ez jakin..

- Ba al daude pertsonaia onak eta txarrak zuentzat? Zeintzuk onak eta zeintzuk txarrak?

| | |
|---|---|
| MARI | 3 urtekoek: Ona zela dio.<br>4 urtekoek: Ona dela esan dute denek. |
| Sugaar | 3 urtekoek: txar bezala ikusi dutek<br>4 urtekoek: txar bezala ikusi dutek. |
| Akerbeltz | 3 urtekoek: txar bezala ikusten dute<br>4 urtekoek: batzuek (6ek on bezala ikusi) eta 4K txar bezala. |
| Atarrabi Mikelats | 3 urtekoek: Biak txarrak direla.<br>4 urtekoek: Biak txarrak direla. |
| Lamiak | 3 urtekoek: Onak direla<br>4 urtekoek: txarrak direla bik eta beste 8rek onak direla. |
| Basajaun | Guztiek txarra dela. |
| Tartalo | Guztiek txarra dela. |
| Galtzagorri | 3 urtekoek: 2K txarrak direla, 6K onak direla.<br>4 urtekoek: 3K txarrak direla eta 7K onak direla. |

| HASIERAKO EBALUAZIOA | |
|---|---|
| **GALDERAK** | **UMEEN ERANTZUNAK** |
| Ezagutzen dituzue euskal mitologiako pertsonaiak? | Mari lau urteko ume bik ezagutzen dute.<br><br>Sugaar ez du inork ezagutzen.<br><br>Akerbeltz 4 urteko lau umek ezagutzen izan dute eta 3 urteko ume batek.<br><br>Mikelats eta Atarrabi ez dituzte ezagutzen izan.<br><br>Lamiak edo Maideak, 4 urteko ume bik ezagutzen izan dituzte.<br><br>Basajaun, 4 urteko 6 umek ezagutzen izan dute eta 3 urteko beste bik.<br><br>Tartalo 4 urteko ume bik ezagutzen izan dute eta 3 urteko batek.<br><br>Galtzagorriak berriz, 4 urteko ume bik besterik ez dute ezagutzen izan. |
| Nola du izena pertsonai bakoitzak? (Mari, Sugaar, Akerbeltz, Atarrabi eta Mikelats, Lamiak, Basajaun, Tartalo eta Galtzagorriak) ( pertsonaiaren irudia erakustean) | Mariren izena 4 urteko 3 umek ezagutzen izan dute.<br><br>Sugar nor den inork ez du jakin.<br><br>Akerlbeltz izena 4 urteko ume bik ezagutzen izan dute.<br><br>Mikelatsen eta Atarrabiren izena ez du inork ezagutzen izan.<br><br>Basajaunen izena 4 urteko bost umek ezagutzen izan dute eta 3 urteko beste bik ere.<br><br>Tartalo 4 urteko 5 umek bere izena ezagutzen izan du eta 3 urteko batek.<br><br>Lamien izena 4 urteko 3 umek jakin dute.<br><br>Galtzagorrien izena berriz, 4 urteko bik besterik ez. |
| Non bizi da pertsonai bakoitza? | Mari, 3 urteko batek esan du basoan bizi dela eta 4 urtekoek; basoan, kobazuloan, mendian.<br><br>Sugar ez dakite non bizi den. |

| | |
|---|---|
| | Akelbeltz 3 urtekoek ez dakite non bizi den eta 4 urtekoek esan dute koban bizi dela.<br><br>Atarrabi eta Mikelats ez dakite non bizi diren.<br><br>Lamiak 3 urtekoek ez dute jakin non bizi diren, 4 urteko bik esan dute erreketan bizi direla.<br><br>Basajaunen kasuan, 3 urteko bik esan dute basoan bizi dela eta 4 urteko guztiek inolako zalantzarik gabe basoan bizi dela esan dute.<br><br>Tartalori dagokionean, 3 urteko batek esan du kobazuloan bizi dela. 4 urteko bik ere gauza bera esan dute. |
| Bakoitzak badakizu zer egiten duen? | Ez dute jakin pertsonaia bakoitzak zer egiten duen. |
| Ba al daude pertsonaia onak eta txarrak zuentzat? Zeintzuk onak eta zeintzuk txarrak? | Mari guztiek ona dela uste dute. Sugaar aldiz, denek uste dute txarra edo gaiztoa dela.<br><br>Akerbetzen kasuan, 3 urtekoek guztiek eta 4 urteko lau umek gaizto bezala ikusten dute.4 urteko seik ordea, on bezala.<br><br>Atarrabi eta Mikelats guztiek uste dute txarrak edo gaiztoak direla.<br><br>Lamiak 3 urtekoek on bezala ikusten dituzte, baina lau urteko bik uste dute txarrak direla eta beste zortziek ordea onak.<br><br>Basajaun eta Tartalo guztiek txar lez ikusten dituzte.<br><br>Galtzagorriei dagokionez, 3 urteko bik txar bezala ikusten dituzte eta seik on moduan. 4 urtekoek aldiz, 3 umek txar kontsideratzen dituzte eta zazpik on lez. |

3. ERANSKINA: Jardueren xehetasunak eta horietan erabilitako material hezigarriak

| **ASTELEHENA** |
|---|
| MATERIALA<br>-**Baliabide pertsonalak:** Tutorea eta esku-hartzearen arduraduna.<br>-**Baliabide materialak:** Murala egiteko papera, euskal mitologiako pertsonaien argazkiak.<br>-**Material hezigarria:** “Argitxo eta mitologia” izeneko ipuina. |
| JARDUERAK<br>Lehenik eta behin, asteko plangintza zein izen den azaldu zaie umeei; aste guztiko gaia zein izango den alegia. Behin plangintzaren nondik norakoak azalduta, aste guztian zehar beraiekin egongo diren Euskal mitologiako pertsonaiak eman dira ezagutzera. Horrela, beraien aurre-jakintzen berri izatea eskaintzen delarik.<br>Pertsonaiak gutxi gorabehera identifikatuta dituztelarik, “argitxo eta mitologia” izeneko ipuina irakurri zaie. Ipuinean zehar Euskal mitologiako hainbat pertsonai ageri dira eta argitxok pertsonai horiekin mintzatzen da. Ipuina irakurri ostean, ipuinean zein pertsonai azaldu diren ikusita eta guztiok batera muralean pertsonai horiek zerrendatu ditugu. Hori dela eta, umeek pertsonaiak ikasiz batera beraien bizitza eta ohiturak ere ikasi dituztelarik. |
| EBALUAZIO IRIZPIDEAK EBALUATZEKO ERABILITAKO TRESNAK<br>Ebaluazioa irizpideak behatzeko erabilitako tresna gisa murala erabili da. Berau osatzeko modua berriz, elkarrizketa bidezkoa izan da. Hau da, murala arbelaren aurrean jarri eta umeei galdera desberdinak eginez, barneratu duten ikusi da, baita hurrengorako zer hobetu litekeen ere. |








| ASTEARTEA |
| --- |
| MATERIALA<br>**-Baliabide pertsonalak:** Tutorea eta esku-hartzearen arduraduna.<br>**-Baliabide materialak:** Euskal mitologiako pertsonaien argazkiak, klariona edo tiza.<br>**-Material hezigarria:** “Argitxo eta mitologia ipuina”**.** |
| JARDUERAK<br>Aurreko egunean irakurritako “argitxo eta mitologia” izeneko ipuina berriro irakurri zaie. Horri esker, ipuina hobeto ulertzeko eta barneratzeko aukera izan dutelarik. Ipuina bigarren aldiz irakurri ondoren, ipuineko euskal mitologiako pertsonaiak nolakoak izan diren deskribatzeari ekin diote, fisiko aldetik zein transmititutakoaren aldetik.<br>Protagonistak nolakoak diren ikusita, horien argazkiak arbelean jarri dira, bakoitzaren ezaugarrien eta transmititutako baloreen zerrenda guztien artean osatu delarik. |
| EBALUAZIO IRIZPIDEAK EBALUATZEKO ERABILITAKO TRESNAK<br>Ebaluazio-irizpideak ebaluatzeko tresna moduan argazkiak erabili ditugu eta hori barneratzeko modua elkarrizketa bidezkoa izango da. |




| ASTEAZKENA |
|---|
| MATERIALA<br>**-Baliabide pertsonalak:** Tutorea eta esku-hartzearen arduraduna.<br>**-Baliabide materialak:** Euskal mitologiako pertsonaien argazkiak, puzzle zatiak, pistak, petoak, artaziak, kola.<br>**-Material hezigarria:** “Argitxo eta mitologia” izeneko ipuina, “basoaren zaindariak ipuina”. |
| JARDUERAK<br>Umeek bakarrik arinagoko egun bietan irakurritako ipuina guztien artean kontatu dute, beti ere, beharra izan dutenean laguntza eskaini zaielarik. Pertsonaia bakoitzak transmititzen dituen balioak identifikatzeaz gain, garrantzitsuena zein den erabaki dute denen artean. Horrela, euskal mitologiako funtsezko ideiak barneratzea eskuratu da.<br>Ondoren, hurrengo hiru egunetan zehar jorratuko diren hiru gaiak zeintzuk izango diren aipatu dira: naturarekiko errespetua, Euskal Mitologian nola ulertzen den “ona eta txarra” kontzeptua, eta elkartasuna edo lankidetza. Gai horiek azpimarratuta, gaurko honetan naturarekiko errespetua izan da gai nagusia eta berarekin zenbait ekintza burutu dira.<br>Gaurkoan, naturarekiko errespetua balorea landuko dute umeek eta horretarako “basoaren zaindariak” ipuina kontatu zaie. Gero, gaiari buruz gehiago ezagutzeko asmotan, umeei galdera desberdinak egin zaizkie, horri buruz uste dutena adierazteko. Umeek esandakoa kontutan hartuko da eta guretzako eta baita gure arbasoentzako naturak zer garrantzi izan duen kontatuko zaie. Elkarrizketatxoa edukita, beraiekin ekintzatxo bat egin da: altxorraren jolasa. |

| |
|---|
| Altxorraren jolasera jolasteko, guztiei pista bat irakurri zaie; beti ere, naturarekiko zaintzarekin edo zer egin behar ez zaien naturako elementuei aipatuz.<br><br>Ostean, denen artean pistekin lortutako puzzle zatiak batu eta ea zer sortu duten kontatu behar izan dute. Behin hori eginda, elkarrizketa txikitxo bat eduki da beraiekin ea agertutako toki hartan (Ogoñoko haitza eta Laga) jateko apurrak botako lituzketen edo bertako hondarra zikinduko luketen galdetu zaie. |
| EBALUAZIO IRIZPIDEAK EBALUATZEKO ERABILITAKO TRESNAK<br><br>Ebaluazio irizpideak ebaluatzeko, elkarrizketa erabili da, beraiekin prozesuaz hitz egiteko eta guztien artean balorazio edo hausnarketa burutzeko. |








**OSTEGUNA**

MATERIALA

**-Baliabide pertsonalak:** tutorea eta esku-hartzearen arduraduna.

**-Baliabide materialak:** Arbela

**-Material hezigarria: "**Txorimaloa" ipuina.

JARDUERAK

Jarduerekin hasi aurretik, arinagoko egunetan aipaturiko baloreak gogora ekarri dira eta horri buruzko gogoeta egin. Modu honetan, ikasitakoa hobeto barneratzea lortu da, balio horien garrantziaz ohituz. Gero, egunean bertan zer balore landuko dugun aipatu da; hau da, Euskal mitologian nola ulertzen den "ona eta txarra" kontzeptua alegia eta ondoren, horri buruzko ipuina kontatu zaie, "txorimaloa" izenekoa.

Behin ipuina kontatuta, ipuinean zer ikusi dutena komentatu dute eta horrekin batera, zenbait galdera egin zaie, umeen izaera nolakoa den ikusteko eta egoera batzuen aurrean zer uste duten jakiteko. Adibidez: "*zuek txorimaloak bezala zuen jostailuak besteekin banatzen dituzue? Uste duzue baserritarrak egin duena ondo dagoela? Zergatik?"* Horrelako galderak eginez, beraien errealitatearekin lotura zuzena egiteko aukera izateaz gain, auto-hausnarketa ere egiteko aukera ere eskaini zaie.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK EBALUATZEKO ERABILITAKO TRESNAK

Ebaluazio-irizpideak ebaluatzeko tresna bezala elkarrizketa erabili da. Eta horri esker, guztien artean baloreari buruzko hausnarketa egin dute.



| **OSTIRALA** |
|---|
| MATERIALA<br>**-Baliabide pertsonalak:** tutorea eta esku-hartzearen arduraduna.<br>**-Baliabide materialak:** Pilotak tamaina desberdinetakoak, 9 aulki, ordenagailua.<br>**-Material hezigarria:** “Azenario erraldoia” ipuina. |
| JARDUERAK<br>Lehenengo eta behin, elkartasunaren baloreak zer nolako garrantzia duen azaldu zaie umeei eta jarraian, “ azenario erraldoia “ izeneko ipuina kontatu, elkartasunaren kontzeptua hobeto azaldu nahian. Ondoren, beraientzako zer suposatzen duen elkartasunak partekatu dute ikaskideekin. Bakoitzak bere iritzia eman, baina guztiak ondorio batera heldu dira: elkartasunarekin gauza asko egin daitezkeela. Hori guztia barneratzeko eta beraien gorputzetan sentitzeko, hiru ekintza desberdin burutu dituzte.<br><br>Lehenengoa, denen artean pilota eskutik eskura pasatuz, gelako punta batetik bestera igaro behar izan dute, kontutan hartuta, hankak geldirik eduki behar dituztela. Hau da, ume bakoitzak bere tokitik mugitu gabe besteari pasatu behar izan dio pilota.<br><br>Bigarrenik, lurrean bata bestearen atzean jarrita, guztiek batera mugimendu berdinak eginez dituzte aurrerantz desplazatu behar izan dute; hau da, kooperazio edo elkarlana ezinbestekoa izan da. Horrela esker, denen artean gelatik mugitzea lortu dute.<br><br>Hirugarrena eta azkena, elkartasun aulkia izan da. Hasiera batean, gelakide bakoitzarentzat aulki bat jarri da eta musikaz baliatu gara ekintza aurrera eramateko. Irakasleak hori gelditu duen bakoitzean, ume oro aulki batean eserita egon behar izan da. Hasieran erraza izan den arren, musika gelditzearekin batera, aulki bat ere kendu da. Horrela, musika gelditu den hurrengo momentuan, umeetako bat bera ere ezin zenez gelditu ezeri gabe, aulkia partekatu edota bata bestearen altzoan eseri behar izan da. Modu honetan, haien arteko elkarlana bultzatzea lortu da; inor galtzaile izan ez zedin, guztien laguntza beharrezkoa izan da/ baita. |
| EBALUAZIO IRIZPIDEAK EBALUATZEKO ERABILITAKO TRESNAK<br>Ebaluazio-irizpideka ebaluatzeko, elkarrizketa bidez gaiaren gaineko galdera sorta egin zaie, umeek dena bereganatu duten ikusteko. |




4. ERANSKINA: Amaierako ebaluazioa txantiloia landa-oharrak








- Gogoratzen al al dute zer balore erakusten duten (Tartaloak, Marik, Sugaarrek, Galtzagorriek, Basajaunek, Atarrabik eta Mikelatsek, Akerbeltzek eta Lamiek?

| | |
|---|---|
| MARI | 3 urtekoek: 6 dute gogoratzen izan.<br>4 urtekoek: 5 umek gogoratzen izan dute Mariren balorea |
| Sugar | 3 urtekoek: Ez dute gogoratzen izan<br>4 urtekoek: Ez dute gogoratzen izan |
| Akerbeltz | Ez dute gogoratzen izan. |
| Lamiak | 3 urtekoek: Ez dute gogoratzen izan.<br>4 urtekoek: 3 umek gogoratzen izan dute. |
| Mikelats Atarrabi | Ez dute gogoratzen izan. |
| Basajaun | 3 urtekoek: batek gogoratzen izan du.<br>4 urtekoek: 5 umek gogoratzen izan dute. |
| Tartalo | 3 urtekoek: Ez dute gogoratzen.<br>4 urtekoek: 2 umek gogoratzen izan dute. |
| Galtzagorri | 3 urtekoek: Ez dute gogoratzen izan.<br>4 urtekoek: Ez dute gogoratzen izan. |



- Natura errespetatzeko zer egin eta zer ez dugu egin behar?

3 urtekoek:

- Arbolak apurtu ez dira egin behar.
- Ez da lurrera ezer bota behar
- Ez dira loreak apurtu behar.

4 urtekoek:

- Mendian eta hondartzan ez dela zaborrik bota behar.
- Ez ditugula zuhaitzetako adarrak apurtu behar.
- Ez dugula plastikoa lurrera bota behar, zakarrontzira baizik.



- Zer esan dugu ondo egiten dagoela eta zer txarto?

3 urtekoek

- Jotzea txarto dagoela, ez dela inor jo behar.
- Gauzak apurtzea ez dagoela ondo.
- Gure gauzak besteei utzi behar dizkiegula.

4 urtekoek

- Gauzak elkarbanatzea ondo dagoela.
- Ez zaizkiola besteari gauzak eskutik kendu behar.
- Gauzak zaindu egin behar ditugula.
- Inor ez dugula sekatu behar eta jo ez dugula egin behar.



- Gauzak elkarrekin egitea hobe da edo ez?

3 urtekoek

- Gauzak batera baikea hobea dela.
- Bakarrik egitea aspergarria dela.

4 urtekoek:

- Bai; Arinago eta azkarrago egiten dela.
- Denok batera egiten ditugunean lanak hobeto egiten ditugula.
- Denok batera egitean, inor ez dela bakarrik uzten.

| AMAIERAKO EBALUAZIOA | |
|---|---|
| **GALDERAK** | **UMEEN ERANTZUNAK** |
| Zein pertsonaia ezagutu dituzue aste guztian zehar? | 12 ume Tartaloz gogoratzen izan da. Horrez gain, 3 ume Basajaunez, Lamiaz eta Galtzagorriez oroitu dira. Beste bik, guztia horietaz gain, Mari eta Akerbeltz ere aipatu dituzte. Baina inori ez zaizkio Sugarren, Atarrabin eta Mikelatsen izenak bururatu. |
| Euskal Mitologiako pertsonaien bizitokiak gogoratzen ahal dituzue? | 4 urtekoek bizitoki guztiak gogoan izan dituzte. 3 urteko bik Mariren eta Tartaloren kobazuloak identifikatu dituzte. Beste hiruk ez dute ezer gogoratzen izan. |
| Gogoratzen duzue zer balore erakusten duten Tartalok, Marik, Sugarrek, Galtzagorriek, Basajaunek, Atarrabi eta Mikelatsek, Akerbeltzek eta Lamiek ? | 3 urtekoek ez dute erantzunik eman. 4 urteko 5 umek esan dute Marik eta Basajaunek natura errespetatzen dutela. 4 urteko beste bik esan dute, Tartalok dioela, gauzak denok batera egin behar ditugula. Azkenik, beste hiruzpalauk diote Lamiek, denei laguntzen dietela. |
| Natura errespetatzeko zer egin edo zer ez dugu egin behar? | 3- 4 urteko 6 umek esan dute, ez dugula mendian ezta hondartzetan ere zaborrik bota behar.<br><br>4 urteko batek esan du, ez dugula arbolarik apurtu behar.<br><br>3 urteko batek esan du lurrera ez dela ezer bota behar.<br><br>3 urteko beste batek esan du, loreak ez direla apurtu behar. |
| Zer esan dugu ondo eginda dagoela eta zer txarto? | Batek dio, jotzea txarto dago, ez dugulako inor jo behar. Beste bik esan dute, gauzak elkarbanatzea ondo dagoela. Beste hiruk esan dute, gauzak apurtzea ez dagoela ondo eta gauzak zaindu egin behar ditugula. |

| | |
|---|---|
| Gauzak elkarrekin egitea hobea da edo ez? Zergatik? | Bik esan dute, gauzak arinago edo azkarrago egiten direlako. 4 urteko beste batek esan du, denok batera egiten ditugunean lanak hobeto egiten ditugula.<br><br>Beste lauk diote, elkarrekin ekintzak egitean inor ez dela bakarrik uzten. |